

Toni Gonzalez hitzaldia

Kultur aholkaria.

“KALEKO ARTEEN NAZIOARTEKO MERKATUA”

"Egun on, buenos dias, bon dia a tothom". Eskerrik asko Artekale elkarteari gonbidapena egiteagatik. Urte batzuk daramatzat kaleko arteetatik aldenduta eta poz handia da niretzat antzinako lagun eta ezagunekin berriro topo egitea. Zoritxarrez (edo ez...), nire ibilbidea beste norabide batetik joan da, eta tira, dena da ongi etorria. Baina urteetan egon naiz esperientzia bat jasotzen, batez ere nazioarte mailan, eta uste dut pena merezi duela elkarbanatzea eta beste batzuek ere kooperazioaren bidea hartzea, maila guztietan: lurralde, nazio eta nazioarte mailako kooperazioa. Nire ustez, interesgarriena, eta nire lanean aberasgarriena jende desberdinarekin egotea izan da, izandako esperientziak elkarri kontatzea, besteek zer egiten duten jakitea; zein baldintzatan, zein egoera politikotan edo administratibotan dauden... eta jende horrekin lan egin ahal izatea eta esatea "egin ditzagun gauzak elkarrekin... zein ondo! Ni Bartzelonatik eta zu... Bilbotik, Paristik edo Melbournetik"; oraingoz nahiko erraza da harremanetan egotea. Nik uste dut pena merezi duela. Hau da, kooperazio kulturalaren edertasuna saldu nahi dizuet, niri gehien eman didana izan delako, oso aberasgarria iruditu zait eta uste dut mundu guztiari irudituko zaiola. Begiak eta bihotza zabaltzea interesgarria da, eta hori proiektatzea. Hemen giltzapetuta geratzen garenean, gure lurraldeetan, gure mundu profesional eta artistikoetan... orduan uste dut gauza asko galtzen ditugula. Gure ingurua, gure nortasuna, oso baliotsua da, baina baliotsua da baita ere munduko beste leku batzuetan zertan ari diren jakitea.

Beraz, merkatuez hitz egitea proposatu didate... orain dela 20 urte baneukan merkatuez hitz egiteko gogo... liburuak ere argitaratu nituen Tarregako Azokan nengoenen... Uste dut lehenengoa "El arte del mercadeo en el teatro" deitzen zela, eta gero... "Promoción y Venta de Espectáculos", ikuskizunen azoketan saldu eta erosteko eskuliburua. Sasoi hartan egin beharra zegoen. Ni ingeniariaren mundutik nentorren eta pentsatzen nuen marketing arloko irizpideak aplikatu behar zirela kulturaren eta antzerkiaren kudeaketan... bestela hemen lau zoro baino ez ginen geldituko... eta kostatu zen... baina Eulalia Blancok atzo esan zuen bezala "hau badago!"... Jainkoari eskerrak, orain beste gauza batzuei buruz hitz egingo dugu, arteari buruz, 80ko hamarkadan hitz egin genuen bezala, arteaz eta sorkuntzaz. Nik uste dut ez dela interesgarria nazioarteko merkatuaz hitz egitea, interesgarria dena nazioarteko kooperazioaz hitz egitea da; eta askoz kontzeptu zabalagoa da.

Une honetan bi diskurtso nagusi daude European, eta nolabait, kontrajarriak dira: “merkadeatzearena” eta kooperatzearena. Zer da merkadeatzea? Ni mundutik noa nire produktuak saltzen diru-sarrera batzuen truke; horrela, konpainia eta artisten biziraupena bermatzen da, oso garrantzitsua baita. Kooperatzea, beharbada, urrunago doa; merkadetzea ere bada... zergatik ez; azken finean, produktuak saltzen dituzte. Baina ideia gehiago ere badauzka bere gain, eta sektore kulturallean, merkataritza-sektoretik aldendu behar dugula uste dut; irizpide propioa eduki behar dugu, gure diskurtsoa ezin da komunikabideek irakasten diguten salerosketa hori izan... egin dezagun ekarpen desberdin bat! Uste dut kooperazioa gure ikurra izan daitekeela; mundu globalizatu honetan gure nortasuna mantentzen lagunduko diguna. Erostea eta saltzea ez da dena nazioarteko harremanetan, horregatik garatu nahi nuen proiektu hau.

Argazkiak jarri ditut kolore apur bat emateko... argazki guztiek daukate zerikusia hitz egiten ari naizenarekin... adibidez, internazionalizazioari buruz hitz egitean, Londresko plaza hori... Trafalgar Square. Plaza horrek udan egiten den kaleko arteen programazioaren une bat aurkezten du, astebururo...

Uste dut lorpen handia dela kaleko arteak Trafalgar Squarera heldu izana, Europako puntu enblematikoetako bat baita. Argazki hau “Arquitects of Air” delakoena da; askok ezagutzen dituzue, aire eta globozko egiturak egiten dituzte, labirinto itxurakoak. Puntu honetara helduta, esan behar dut nazioarteko jarduerak ez direla lan erraza, baina bidea jarraitu baino ez dago, “Arquitects of Air” egitura batean sartzen zarenean bezala. Eta bai, bide labirintikoak dira, baina kolorez beteak; bakoitzak bere grazia dauka, bere kolorea eta bere soinuak; bere berezitasunak. Hori daukate zirkuituek; sartu beharra dago, baina modu seguruan, ez edozein modutan.

Esan dezakegu hiru gauza garrantzitsu egin behar direla bidea hasi aurretik, maleta egin aurretik. Hiru puntu hauek argi eduki behar ditugu: norbere anbizioak definitu, zer nahi dugun, zer bilatzen dugun... bakoitzak gauza desberdinak bilatuko ditu pertsona bezala, erakunde bezala, elkarre bezala... zeren bila gabiltza? Bigarrenik, beste herrialdeetako sistema kulturalak ulertu behar ditugu, nola funtzionatzen duten jakin, eta kultura arloko jendea garez gero, leku bakoitzeko eredu kulturala ulertu, desberdinak baitira. Eta gero, batez ere, kaleko arteen egiturak ezagutu behar ditugu, zirkuituak, guneak, kaleko artea non garatzen den.

Zeintzuk dira programatzaileen anbizioak? Zer bilatzen du programatzaile batek? Uste dut programatzaileak berrikuntza bilatu eta aurkitu ahal duela atzerrian. Proiektu berriak, ideiak, artea egiteko moduak, sortzaileak... hemendik kanpo gauza asko egiten ari gara... hobeto edo txarrago, baina gauzak egiten ari gara... eta pertsona batzuk oso ondo ari dira, talentu handia dago eta bide berri asko aurkitzeke. Zeintzuk dira egun Europan definitzen ari diren ildo artistikoak? Hemen, artearen historian, XX. Mendean gelditu egiten gara; antzerkiaren historian, aurreratuenak Pina Bausch-en gelditzen dira... eta ez; orain jendea gauza interesgarri asko egiten ari da. Adibidez, Komplex-kapharnaum "SquarE" ikuskizuna lehenengo aldiz ikusi nuenean, "Aurillac"-en, kaleko arteak ulertzeko beste modu bat ikasi nuen; modu parte-hartzaile bat, teknologia berriak erabiliz, jendeari lotuta, auzokoak, euren arazo eta bizitzekin.

Programatzaileak praktika onak bilatzen ditu. Jaialdiak... programazioak... errazena ikuskizunen zerrenda bat egitea da, nork ez du egiten zerrenda bat?... Hortzmuga, Transe Express... seguru arrakasta lortuko dugula. Programatzaile batek egin behar duena zera da, jarduera kultural bat garatu programazio horretatik abiatuta. Artista eta ikuskizunak gonbidatu ditzake bere hirira, eta orduan, hortik aurrera, praktika onak daude. Erresuma Batuko jaialdietan asko garatzen ari dira praktika horiek, hala nola "LIFT" jaialdian, "London International Festival of Theatre".

Artista bat Londresera doa LIFTean lan egitera eta topera ibiliko da astebetez; taldeekin lanean arituko da, ikastaroak eta tailerrak egingo ditu. Londresera bidaiatuko du elkartrukea egiteko eta gero, noski, bere ikuskizuna aurkezteko.

Goazen aurrera... programatzaileak beste programatzaile eta proiektu artistiko batzuk ezagutu ditzake, eta haiekin harremanetan jarri, elkarrekin lan egiteko. Programatzaileak, berez, aurrea hartu dezake falta den zerbait garatzeko; zuzendari artistikoaren rola hartu dezake jaialdietako beste zuzendari artistiko batzuekin batera, eta beste sorkuntza bat bultzatu.

Programatzaileen sareetan ematen ari da hori eta "In situ" eta "Eunetstar" sareen helburua da. Bi sareok Cultura 2000 programaren Europako Batzordearen babesia daukate. Programatzailea "IETM" delakora ere joan daiteke, "Informal European Theatre Meeting". Nik asko ikasi dut leku horretan, pentsatzen eta hausnartzen. Profesionalen bilera bat da, ez bakarrik programatzaileena; artista, konpainia eta erakunde publikoena ere. Urtean bitan biltzen dira Europako hiri desberdinetan. Hitz egiten dute, eztabaidatzen dute... aparteko lekua da.

Hitz egin dezagun artistaren nahiez. Artistak bidaiatu nahi du, eta inspirazioa bilatu; programatzaileak bezala. Gauza berriak egiten dira, desberdinak... Niri gehien irakatsi didan jaialdia, jende askok kontrakoa esan arren, "Aurillac" da. "Aurillac" jaialdi "ofiziala"; off jaialdia ez da interesgarria. "Aurillac" delakoak bi gauza ditu... jaialdi txikia da baina kalitate handikoa. 10 edo 12 produkzio berri egon daitezke urtean, Frantziako eta atzerriko onenak. Gero, Off delakoan, 300 konpainia inguru daude, mota guztietakoak. Beste inspirazio leku bat Greenwich Jaialdia da, Londresen; etorkinen komunitateekin lan egiten duten proiektu berriengatik.

Zer aurkitzen du artistak kanpora doanean? Artistek ikus-entzule desberdinak aurkitzen dituzte. Normalean, artistak inguruko ikus-entzuleen aurrean jartzen du bere obra, eta artista eta sortzaile bezala emaitzak lortzen ditu, baina beste ikus-entzule batzuekin beste emaitza batzuk lortuko lituzke, eta hor dago erronka: beste ikus-entzule batzuentzako lan egin, mundua oso handia da eta ikus-entzuleak asko dira... nola erantzungo dute beste batzuek? Zergatik erantzuten dute horrela besteek? Txundigarria iruditzen zait atzerriar moduan doan artista eta ikus-entzuleen erreakzioa ikusten duena.

Oliverrek asko hitz egin du egoitza eta akonpainamenduari buruz; hemen, zoritxarrez, ez dakigu akonpainamendua zer den. Baina, Frantzian, hemengo artistek aukera handiak dituzte... sarritan, produkzio zentroetako zuzendariek esaten didate artista espainiarrak onartuko lituzketela, arazorik gabe, akordio batzuk badaude.

Akonpainamendua sorkuntza eta egoitza zentroetan ematen da, zuzendaritza artistiko sendoa daukatenetan... zuzendari artistikoa dago eta talde tekniko eta administratiboak. Konpainia bat bertara doanean, sorkuntza-prozesuan laguntzen zaio. Beste artista batzuk aurkitzen laguntzen zaie, tresnak fabrikatzen eta geroko prestakuntza bat nolakoa den irakasten zaie; administrazio-planak egiten dira, enpresa-planak, ondo egindako balantzeak, marketing planak; eta arazo teknikoetarako jendea dago... hori da akonpainamendua... . Gainera, zirkuituak bilatzen zaizkie eta merkatuan sartzeko laguntza ematen zaie. Zentroa zuzentzen duen jendea aditua da... eta esperientziaren bidez irakasten dute.

Zein itxaropen dauka konpainiak kanpora irteteko? Batez ere emankizunak saltzea... urrunago ez bagoaz, ba, behintzat saltzea... gai serio baten inguruko txantxak egiten ari naiz, iraupen kontua baita. Tira, Frantzian dauden moduko diru-laguntzak baleude hemen, ez ginatke bizirauteaz hain kezkatuta egongo... beste gauza batzuk egin ahalko genituzke.

Europarantz ez dago ia azokarik, hemen dugun azokaren kontzeptua kontuan izanda. Orokorrean, jaialdiek azoka bezala funtzionatzen dute. Gainera, topagune soilak dira, azoka moduko egitura bat garatzen dutenak. Artearen sektoreek ez diete azoka izena eman nahi, merkataritza kutsua duelako; baina egia esateko, hemengo azokaren modukoak dira. Desberdintasuna da programa artistikoak lehenengo mailakoak izaten direla. Nire ustez, azoka frantses garrantzitsuenak hauek dira: "Aurillac". "Châlon sur Saône" eta "Soteville". "Chalon" interesgarriagoa iruditzen zait azoka bezala, ez baitago "Aurillac" bezain masifikatuta. Beraz, "Chalon" delakoak askoz aukera gehiago ematen ditu profesionalekin elkartzeko. "Chalon" lasaiagoa da. Nazioarteko harremanak hasi nahi dituenari hori gomendatuko nioke. Bestalde, Ingalaterran azoka interesgarri batzuk sortu dira. Manchesteren, X-Trax delakoak hogeitaz urte funtzionatu du, baina maiztasunaren aldetik ez da erregularra izan.

Nazioartean dabilzan konpainiak, artista indibidualak bezala, beste konpainia eta erakunde batzuen guneetan egon ahal dira, edonon baitaude Europarantz zehar. Sorkuntzarako laborategiak dira, edo norberaren ikuskizuna aztertu edo produzitzekoak.

Kanpora irten nahi dugu, baina, nola?... nola jantzi, zein kapela jarri... batzuetan jendea nahastu egiten da irteten denean. Alde batetik, kontuan izan behar da zer baloratzen duten kanpokoek. Zer bilatzen dute kanpokoek gudan? Alde batetik talentua, noski. Talentua daukan jendeak nazioarteko bidea egingo du. Gertatzen dena da talentu gutxi dagoela. Nortasuna ere interesatzen zaigu. Oinarrizko gauza ematen du, nik internazionalizazioan sinesten dut, baina beste ni asko daukat... ni katalana naiz, baina ez Bartzelonakoa, Valentzia... Tortosakoa naiz, beraz, nire berezitasuna daukat. Artistek, artista nortasuna daukazue, zuen lan egiteko modua, eta hori da kanpoan baloratzen dutena, bakoitzak bere izaera propioa izatea, bere nortasuna. Leku batetik zator eta hori erakutsi behar duzu. Nortasuna oso lotuta dago pertsonalitatearekin, baita artista eta programatzaileena ere... ni leku batetik nator baina ni ere banaiz, eta nire proiektua defendatzen ari naiz. Nire proiektuak beste batenak bezain baliogarriak dira. Nire proiektua defendatuko dut eta ez naiz ezereen beldur izango... Orokorrean, espainiarra konplexuz beterik irteten da Europarantz... arazoa larriagoa da hizkuntzarik ez badakizu, horrek beldur handia ematen du... orain Zapaterok 1.000 euro emango die gazteei ingelesa ikasteko. Har itzazue denok, ingelesa ikasi beharra dago eta. Nortasun propioarekin eta beldur barik joan behar da... gure izaera eta lan egiteko modua erakutsi behar dugu; "Xarxa" doan bezala. Azkenik, espainoltasunaren estereotipoak ekidin behar dira. "Martínez y Fábregas" deritzon

konpainia ingeles bat dago... mexikar kapela eta guzti... eta estereotipo espainola egiten dute... desastre bat!... Asko saltzen du, baina kulturalki desastre hutsa da.

Orain eredu eta herrialdeei buruz hitz egiten hasiko gara. Eredu bezala, Frantzia, Holanda eta Erresuma Batuko ereduak garatu nahi ditut. Horiek hiru eredu desberdin dira. Sorkuntza mailan eta kultura politika mailan, ekarpen berriak egiten ari dira. Frantziari dagokionez, oso ondo datorkit "Royal de Luxe" (pantailan) elefante hau, definizioa egiteko. Hori da Frantzia, dotorezia, dirua, aurrekontua. Esan nahi dudana da elefante honek zera irudikatzen duela, zerbait oso handia, oso argia, baina barrutik oso hutsik dagoena. Ez dut polemikarik piztu nahi, baina subjektiboa izango litzatekeela esan dut. Frantzia politiken herri nagusia iruditzen zait, baina sorkuntza mailan estankatuta dago. Uste dut gauza garrantzitsuak egin direla Frantzian, baina maila altuena Holanda eta Erresuma Batuan dago. Une hauetan, herrialde horietan egiten ari dira gauza berriak; txikiagoak, hainbeste dirurik gabe, baina sormena dago. Edonola ere, Frantzian, kaleko arteari bere izena eman zitzaion aspaldi, eta horregatik zaindu eta babesten dira arte horiek. Frantzian, Erresuma Batuan ez bezala, artistaren eta artearen egoera ona da. Frantzian artista kultura politiken erdigunean dago... artistari babesa eta laguntza emateko lan egiten da, ikuspuntu horretatik... politika guztiek defendatzen dute artistaren lana eta bera, pertsona moduan. Hori dela eta, artistaren estatutua sendoagoa da Frantzian, Europako gainerako herrialdeetan baino.

Erresuma Batua beste eredu bat da, European kaleko arteak garatzeko beste modu bat. Erresuma Batuan nabarmenena parte-hartze politika da.

Erresuma Batuko kultur politika gizarte-politika da; garapen eta gizarte-kohesiorako politika instrumentala dela esan genezake. Horregatik etorri dira hainbeste ingeles kale-jaialdietara (bereziki Tárrega), gure eredua asko interesatzen zaielako, jai-eredua, ikus-entzuleekin konplizitate hori. Eta horrela, Ingalaterran Inauteriak eta Melak garatzen ari dira batez ere, tradiziozko jai hinduak direlako. Komunitate hinduetatik atera eta hiri desberdinetan ezarri dituzte.

Holandako eredua berrikuntzaren eredua da, sorkuntza mailan. Zaila da euren lana ulertzea, irizpide estetiko latinotik oso urrun dagoelako. Gure artean, ez da ezer ulertzen, kontzeptuzko sortzaileak dira, eta gugandik oso urrun daude. Edonola ere, azkenean euren lanaren sakontasuna ulertzen amaitzen duzu. Eta kaleko arteei dagokienez, "Site Specific" deritzona dago... espazio jakin batzuetarako produzitzen diren ikuskizunak. Alde horretatik, jaialdirik interesgarriena Oerol da, gomendatzen dizuet... Jaialdia irla batean gertatzen da, irla osoan.

50.000 biztanle daude. 25 km ditu gehienez, bizikletaz zabilta eta lekuak ikusten dituzu. Oerol sormen handiko lana iruditzen zait. “

Amaitzeko, hiru esaldi lapidario: Ikasteko asmoz irten beharra dago, hori oinarrizkoa iruditzen zait... ez diogu inori ezer irakatsiko, horretarako gaitasuna izan arren. Ematen duzun beste jasoko duzu, trukean ezer eman gabe saltzera bazoaz, ez duzu ezer lortuko, eta gutxiago orain, kooperazioaren munduan... norabide biko lana da. Bruselako jaialdiko zuzendariaren esaldi bat da hau: “ate eta leiho guztiak ixten badituzu, etxeak usaina hartzen du berehala”. Eskerrik asko.